

**BERMEOKO UDALAREN DIRU-
LAGUNTZEN UDAL PLAN
ESTRATEGIKOA 2017**

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

XEDE OROKORRAK

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak jasotzen duen legezko agindua betetzea. Lege honetako 8.1. artikulua diru-laguntzak eman nahi dituzten udalak dagozkien Plan Estrategikoa onartzera behartzen ditu.
- Modu zuzenean **eragin eraginkortasun eta efizientzia mailak areagotzen** diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketan.
- **Herritarrei** diru-laguntzen gaira **errezago heltzeko modua hobetzea**, gardentasun, udal-irizpideen bateratasun eta lehia askearen bermearekin.
- Diru-laguntzen udal kudeaketa arrazionalizatzea bere plangintzan zeharkakotasuna, prozeduretan sistematizazioa eta ebaluaziorako tresna tekniko aurreratuak emanaz.

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

HITZAURREA

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 8.1 artikulua oinarritzko izaera du, horregatik diru-laguntzak eman nahi dituzten udal guztiek dagokien Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartu beharko dute. Plan hori urterokoa izango da eta diru-laguntzak sortu aurretikoa. Intentzioa urte anitzekoa izatea da, urtero egin beharreko berrikusketekin.
- ❑ Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko hamairugarren xedapen gehigarriak ezartzen du legezko arau edo erreglamenduetan aurreikusitako politika publikoei buruzko plan edo programak Diru-laguntzen Plan Estrategikotzat joko direla eta 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan aurreikusitako edukia jasoko dutela.
- ❑ Diru-laguntzei buruzko informazio gehiago izateak merkatuan eragina izan ditzaketen distortsio eta interferentziak kentzea ahalbideratuko du, eta administrazio publikoen jardunen osagarritasuna eta koherentzia erraztuko du,edozein motako gainjartzea ekidinez.

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

1.KAPITULUA: OINARRI OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Udal honek 2017 epealdian ezarriko dituen diru-laguntzak Plan honetan aurreikusitakoaren arabera izango dira.

2. ARTIKULUA

Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta diru-laguntzak arautzeko oinarriak onartu.

3. ARTIKULUA

Diru-laguntzak ezartzeko baldintza izango da aurrekontuaren egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kontsignazioak eta diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

4. ARTIKULUA

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzat, eta ezingo dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

5. ARTIKULUA

Plan honen oinarri orokorrak dira:

- ❖ **Publizitatea eta lehiakortasun askea** aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibitatea, gardentasuna, publizitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, emakida zuzenaren kalterik gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.
- ❖ Aurrez deialdian ezarritako **irizpide objektiboen** arabera izango da emakida, onuradun izan daitezkeenek irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko.
- ❖ **Eraginkortasuna** jarritako helburuak betetzerakoan eta **efizientzia** baliabide publikoak esleitzerakoan. Kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko da.
- ❖ Diru-laguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminazio ezaren printzipioetara egokitzen direla **kontrolatzea** eta aztertzea.

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

6. ARTIKULUA

Tokiko Gobernu Batzordea izango da laguntzak eta diru-laguntzak emateko organo eskuduna, kudeaketa ekonomikoa egiteko funtzioa du eta beraz, Diru-laguntzen Plan estrategikoa exekutatzekoa.

Halanda ze,

- Diru-laguntza programak **aurrekontu zuzkidura** egokia eta behar bestekoa **egotearen menpe daude**.
- Diru-laguntza edo emakida zuzenak (hitzarmenak) eman aurretik **gastua onartu beharko da** Bermeoko Udaleko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.
- Eta azkenik, diru-laguntzak eman aurretik, **emakida arautzen** dituzten arauak edo **oinarriak onartu** beharko dira.

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

2. KAPITULUA: PLANAREN EDUKIA

7. ARTIKULUA

Plan honetan 2017ko ekitaldirako aurreikusitako laguntzek eta diru-laguntzek honako hauek jasotzen dituzte bakoitzari dagokion eranskinean:

- Lortu nahi diren helburuak.
- Aplikatu daitezkeen emakida mota
- Jasotzaileak
- Diru kopurua
- Aplikazioa aurrekontuan

8. ARTIKULUA

Plan hau hiru eranskinetan egituratzen da:

- **I. eranskina:** Diruz lagundu ahal diren jarduerak zerrendatu eta xehatzen dira, diru-laguntza ematen duen udal sailen arabera antolatuta.
- **II. eta III. Eranskinak:** Erakunde autonomo biei dagokienez aurreikuspen bera jasotzen du.

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

9. ARTIKULUA

Aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntzak ondorengo irizpideen arabera zerrendatuta agertzen dira eranskin bakoitzean:

- **Lortu nahi diren helburuak**
- **Kudeaketa mota:** Irizpide honekin diru-laguntza emateko aplikatu beharreko prozedura aurreikusten da, horretarako Diru-laguntzetarako Udal Ordenantzan ezarritako oinarri orokorrekin eta baldintzekin bat etorriz.
- **Zenbatekoa:** Diru-laguntza bakoitzerako aurreikusitako kontsignazioari buruzkoa.

3. KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZEN ONURADUNAK ETA GAIAK

10. ARTIKULUA

Udalak eta bere Erakunde Autonomoek diru-laguntzak pertsona fisiko edo juridiko pribatuei emango dizkie herri onurako edo gizartearen intereseko jarduerak egiteko edo udal eskumeneko helburu publikoak lortzea sustatzeko.

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

11. ARTIKULUA

Bermeoko Udalak urtero eman ahal izango ditu diru-laguntzak ondorengo eskumen arloetan: Gizarte ongizatea, kultura, hezkuntza, euskera, gazteria, garapen ekonomikoa eta lana, kirolak... diruz lagun daitezkeen lerro desberdinetan.

4. KAPITULUA: DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA. EMAITZEN AZTERKETA

12. ARTIKULUA

Diru-laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, diru-laguntzak ematen dituzten departamentuek txosten arrazoitua eskatuko diete diru-laguntzak jasotzen dituztenei. Txostenean egindako ekintza kopurua eta diru-laguntzak zenbat herritarrengan izan duen eragina jaso beharko dira batetik, eta, bestetik, lortutako helburuak justifikatu beharko dira.

13. ARTIKULUA

Zehazki, eta diruz lagunduko den programa bakoitzaren oinarri zehatzek edo hitzarmenek edo banakako akordioek eman beharreko informazioa zabaldu ahal izatearen kalterik gabe, diru-laguntzarekin lortu nahi ziren helburuak betetzearen ebaluazio zuzena egiteko, diru-laguntza jaso duen erakundeak (diru-laguntzak nora bideratzen diren zuriaketaren testuinguruan), ondorengo informazioa aurkeztu edo zehaztu beharko du:

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

- Laguntzaren helburua
- Diru- laguntza jasotzen duen erakundea eta hala bada, laguntzailea
- Importe subvencionado desarrolladas con el importe de la subvención -Diruz lagundutako zenbatekoa. Diru-laguntzarekin egindako ekintza zehatzak. (bigarrena ondo)
- Ekintza zehatzak
- Diruz lagundutako ekintzak eragina izan duen herritarren kopurua.
- Diru- laguntza ematen duen erakundearen balorazioa laguntza eman zenean lortu nahi ziren helburuekiko egokitasunari buruz eta dagokion programarekin jarraitzearen edo kentzearen bidezkoitasunari buruz.

Tramitazioaren ardura duten edo kudeatzen duten sailen aldetik, aurkeztutako agiriak ikusita, diru-laguntzaren zuriketari dagokion erabakiarekin batera, zera egin beharko da: ematen den unean lortu nahi izan diren helburuen betetzea eta egokitzapena baloratzea, baita mantenimenduari dagokionean ere edo, beharrezkoa denean, egitasmoaren ardatza den programa aldatzea edo kentzea.

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

5. KAPITULUA: DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN FINANTZA- KONTROLA

14. ARTIKULUA

- Diruz lagundutako programen finantza-kontrola Udaleko Kontu-hartzailtza Orokorrari dagokio. Honek, espediente bakoitzean ageri diren datei dagokienez, diruz lagundutako zenbatekoen ordainketen benetako datak aztertuko ditu, baita erabilitako ordainketa moduak eta onuradun bakoitzari diru-laguntza lortzeko eskatu zaizkion alderdien ziurtatze egokia ere. Kontu-hartzailtzak diru-laguntzak ikuskatzea errazteko ziurtagiri ereduak prestatu ahal izango ditu.
- Aurrekoaren kalterik gabe, diru-laguntzen izapidetzearen ardura duten administrazio-unitate desberdinen arduradunek espedientean behar bezala jasota utziko dute, idatzizko egiaztagiri bitartez, beharrezkoak diren udal erabakiak hartzeko legez eska daitezkeen baldintzak betetzea garapen edo tramite aldi desberdinetan.

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

5. KAPITULUA: DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN FINANTZA- KONTROLA

14. ARTIKULUA

- Diruz lagundutako programen finantza-kontrola Udaleko Kontu-hartzailletza Orokorrari dagokio. Honek, diruz lagundutako zenbatekoen ordainketen benetako datak aztertuko ditu espediente bakoitzean aurreikusitako datei dagokienez , baita erabilitako ordainketa moduak eta onuradun bakoitzari diru-laguntza lortzeko eskatu zaizkion alderdien ziurtatze egokia ere. Kontu-hartzailletzak diru-laguntzak ikuskatzea errazteko ziurtagiri ereduak prestatu ahal izango ditu.
- Aurrekoaren kalterik gabe, diru-laguntzen izapidetzearen ardura duten administrazio-unitate desberdinetako arduradunek espedientean behar den moduan jasota utziko dute, idatzizko egiaztagiri bidez, hartu behar diren udal erabakiak hartu ahal izateko eska daitezkeen legezko baldintzak bete direla, garapen edo tramite zati desberdinetan.

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

6. KAPITULUA: TOKIKO GOBERNU BATZARRERA ETA KONTUEN BATZORDERA **BIDALI BEHARREKO INFORMAZIOA**

15. ARTIKULUA

Urtero jarriko da Tokiko Gobernu Batzordearen eta Kontuen Batzordearen esku, udal diru-laguntzen egitearen emaitzen laburpen objektiboa.

DIRU- LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA 2017

I. ERANSKINA

BERMEOKO UDALA

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

KULTURA	Bermeoko kultur taldeei urteko jarduera arruntak finantzatzeko diru-laguntza programa
XEDEA	Bermeoko kultur taldeei urteko jarduera arruntak finantzatzeko diru-laguntza programa
HELBURUAK	Udalaren 5.3 helburu estrategikoa dan “talde sozial eta kulturalen ekimenak bultzatu” garatzeko, dirulaguntza hau Bermeoko kultur taldeen urteko programak eta ohiko funtzionamendurako izango dira interes sozialekoaka badira.
JASOTZAILEAK	Kultur ekintzak egiten dituen irabazteko asmo gabeko elkarteak, euren egoitza eta jarduera Bermeon izanik.
KONTZESIOAREN MODALITATEA	Konkurrentzia lehiakorra
ZENBATEKOA ETA AURREKONTUAREN APLIKAZIOA	00400-33410-4810100 : kultur taldeei diru-laguntza: 17.000,00.- Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

KULTURA	2017.Urteko Bermeoko Kultur Taldeen eta bestelako pertsona juridikoen jai ekitaldi bereziak finantzatzeko programa.
XEDEA	2017.Urteko Bermeoko Kultur taldeen eta bestelako pertsona juridikoen, jai ekitaldi bereziak finantzatzeko programa.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">• Euskal folklorea eta kultura eta eskualdeakoa zabaltzeko, izaera publikoko ekintzen garapena eta presentzia lortzea, batez be Andra Mari eta Santa Eufemia jaietan.• Beste komunitate eta udalerrietan ekintzen bidez garatzeko, elkartrukeak eta euskal kultur ondarearen eta eskualdekoaren zabaltzea sustatzea.• Udalak antolatutako ekintzetan partehartzea lortzea
JASOTZAILEAK	Herriko irabazi asmo gabeko elkarteak
KONTSEZIOAREN MODALITATEA	Prorrata
ZENBATEKOA ETA AURREKONTUAREN APLIKAZIOA	00400-33410-4810106: Lankidetzak hitzarmenak ekintzak:43.750,00-Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

KULTURA	Kultur taldeei eta bestelako pertsona juridikoentzako jardura bereziak finantzatzeko dirulaguntzak
XEDEA	2017.Urteko Bermeoko kultur taldeen jardura bereziak finantzatzeko programa.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">• Giza eta Kultur taldeen ekintzak bultzatzea.• Kultur sorkuntzako ekintzak bultzatzea, arreta berezia izanik, euskal kulturea sustatzen dabenak.• Hainbat arlotan sorkuntza eta zabalpen artistikoa bultzatzea.
JASOTZAILEAK	Herriko irabazi asmo gabeko elkarteak
KONTSEZIOAREN MODALITATEA	Konkurrentzia lehiakorra
ZENBATEKOA ETA AURREKONTUAREN APLIKAZIOA	00400-33410-4810106: Ekintzetarako diru-laguntza:22.500,00- Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

GAZTERIA	Gazteei bideratutako ekintzak zein aisialdiko ekintza bereziak finantzatzeko 2017. urtean
XEDEA	Gazteei bideratutako ekintzak zein aisialdiko ekintza bereziak.
ERAGINAK EDO HELBURUAK	Bermeoko gazteen artean elkarteak sortzea suspertzea eta herri mailan gazteei bideratutako ekintza eta programa bereziak finantzatzeko gazteen elkartei baliabide ekonomikoak ematea.
JASOTZAILEAK	Xedea gazteria duten irabaz asmo gabeko herriko elkarteak.
KONTSEZIOAREN MODALIDADEA	Konkurrentzia lehiakorra.
ZENBATEKOA ETA APLIKAZIOA AURREKONTUAN	01200-33421-4810308: Diru-laguntzak gazteria: 2.000,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

EUSKERA	Homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegieta, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako diru-laguntza
XEDEA	Homologatik dauden euskaltegi edota barnetegietan, helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiten dituzten Bermeoko biztanleentzako diru-laguntza.
HELBURUAK	Euskara ikasten ari diren Bermeoko bizilagunei erraztasunak ematea, matrikula ordaintzea eragozpena izan ez dakien euskara ikasteko.
JASOTZAILEAK	Bermeon erroldatuta dauden pertsona fisikoak deialdiaren oinarri espezifikoetan agertzen dena betetzen badute.
EMATEKO MODALITATEA	Deialdi orokorraren barruan, horretarako ezarritako baldintzak betez gero
ZENBATEKOA ETA AURREKONTU PARTIDA	01400-33540-481015: Euskera ikasteko diru-laguntzak bermeotarrentzat: 8.000,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

EUSKERA	Merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko diru-laguntza
XEDEA	Dendetako, tabernetako edo zerbitzu –enpresa txikietako errotuluak euskaraz ipintzen duenari diru-laguntza ematea.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">• Merkataritza eta enpresa arloan euskara erabiltzea sustatzea.• Establezimenduetako identifikazio-ikurrak euskaraz jar daitezen laguntzea, udalerriko hizkuntza paisaje euskaraz egon dadin.
JASOTZAILEAK	Bermeon kokatuta dauden merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresa txikietako titularrak
EMATEKO MODALITATEA	Deialdi orokorraren barruan, horretarako ezarritako baldintza betez gero.
ZENBATEKOA ETA AURREKONTU PARTIDA	01400-33540-4710000: Establezimenduetako errotuluak euskaraz ipintzeko diru-laguntza: 1.500,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

EUSKERA	Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko diru-laguntza
XEDEA	Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko gastuaren finantziazio laguntzea
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">• Bermeoko bizilagunen bizitzaren arlo guztietan euskararen erabilera normalizatzea.• Euskararen erabilera sustatzeko udalerriko eragileekin batera ekimenak eta programak bideratzea.
JASOTZAILEAK	Bermeon erroldatuta dauden eta gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen duten pertsonak
EMATEKO MODALITATEA	Deialdi orokorraren barruan, horretarako ezarritako baldintzak betez gero.
ZENBATEKOA ETA AURREKONTU-PARTIDA	01400-33540-4800102:Gidabaimena euskaraz ateratzeko diru-laguntza: 1.000,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

LANA ETA TOKI-GARAPENA	Herri barruan jarduera ekonomikoaren sustatzeko diru laguntzak
XEDEA	Herri barruan jarduera ekonomikoaren sustatzea.
ERAGINAK EDO HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">• Herri barruan jarduera ekintzaileak dinamizatzea• Kalitatezko lanpostuak sortzea sustatzea• Bermeoko lehenengo sektorea lagundu eta mantentzea• Nekazaritzako elikagaien kontsumitzaileentzako kalitatea bermatzea• Txikizkako komertzioa berritzea eta profesionalizatzea
JASOTZAILEAK	Bertoko azoka, feria eta abar... sustatzeko ekintzak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarteak (Berton. Berazel)
EMATEKO MODALITATEA	Nominatiboa
ZENBATEKOA ETA APLIKAZIOA AURREKONTUAN	0010-43300-4810100 Berton/Berazel enpresa garapena: 20.000,00.- euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

KULTURA- ETA ARTE- ONDARE	Herriko kultura-, arte- eta ingurumen- ondarearen zainketan laguntzen duten irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeek garatzen dituzten ekintzak finantzatzeko programa
XEDEA	Herriko historia-, kultura- edo ingurumen-ondarea zaintzeko izaera duten ekintzak egitera zuzendutako diru-laguntza.
ERAGINAK EDO HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">• Udaleko arte-ondarearen iraunkortasunerako mantenu eta sentzibilizazio lanen garapena sustatzea; baita ingurumen-hobekuntzarako egitasmo edo jokabideak egitea, eta gune zabalen hobekuntza.• Ondareak gizarteari eskaintzen dion balioaren ezagutza sustatzea.
JASOTZAILEAK	Gaztelugatxe Taldea Elkarte
EMATEKO MODALITATEA	Diru-laguntza izenduna, hitzarmen modura
ZENBATEKOA ETA APLIKAZIOA AURREKONTUAN	00800-33610-4810114 : Gaztelugatxe Taldea: 3.000,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

UDALA ETA GIZARTE-LANKIDETZA	Euskal Fondoa erakundeak gauzatutako nazioarteko elkartasun eta kooperazio egitasmoen finantziatorako programa
XEDEA	Euskal Fondoa elkarteari kofinantziatorako diru-laguntza ematea garapenerako kooperazio programen arloan egitasmoak burutzeko, elkarte autonomoko beste herri-administrazio batzuekin lankidetzan, garapen bidean dauden herrialdeen baldintza sozioekonomikoak hobetzera bideratutakoak.
ERAGINAK EDO HELBURUAK	Aipatutako erakundearen bitartez kooperazio egitasmoak garatzea laguntzea, eredu horrek eskala-ekonomiak lortzea ahalbideratzen duela ulertzen delako eta gainera bestela, duten tamaina ekonomikoagatik, bideraezinak izango liratekeen egitasmo batzuk egiteko bidea ematen duelako.
JASOTZAILEAK	Euskal Fondoa, egitasmoen administratzaile eta arduradun modura
EMATEKO MODALITATEA	Zuzena, hitzarmen modura
ZENBATEKOA ETA APLIKAZIOA AURREKONTUAN	00800-23210-4800100: Gizarte laguntzak : 20.000,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

UDALA ETA GIZARTE-LANKIDETZA	Bermeoko Udaleko gizarte asistentzirako diru-laguntzak 2017
XEDEA	Gizarte asistentziko 2017ko diru-laguntza.
ERAGINAK EDO HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">•Euskal gizon eta emakumeei espetxetik edo erbestetik itzultzean, ahalik eta laguntza handiena ematea jendartean egokitzeko eta haien bizitza berria duintasunez eraikitzeko.•Gune berri batera moldatzen laguntzea erabaki eta etorkizunaren jabe izaten ikasteko berriro.
JASOTZAILEAK	Harrera erakundea, egitasmoen administratzaile eta arduradun modura.
EMATEKO MODALITATEA	Zuzena, hitzarmen modura.
ZENBATEKOA ETA APLIKAZIOA AURREKONTUAN	00900-23020-4810100: Gizarte laguntzak. Harrera erakundea: 1.000,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

UDALA ETA GIZARTE-LANKIDETZA	Bermeoko Udaleko gizarte asistentzirako diru-laguntzak 2017
XEDEA	Gizarte asistentziko 2017ko diru-laguntza.
ERAGINAK EDO HELBURUAK	•Krisi ekonomikoaren ondorioz muturreko egoerak bizi dituzten Bermeoko herritarrei laguntza ematea
JASOTZAILEAK	Bermeoko Kate Sarea , egitasmoen administratzaile eta arduradun modura.
EMATEKO MODALITATEA	Zuzena, hitzarmen modura.
ZENBATEKOA ETA APLIKAZIOA AURREKONTUAN	00900-23020-4810101: Gizarte laguntzak. Kate Sarea: 1.000,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

UDALA-GIZARTE ONGIZATEA	Gizarte-ekintza arloan euren jarduna Bermeon garatzen duten elkarteetarako diru-laguntza programa.
XEDEA	Gizarte-ekintza arloan jarduera garatzen duten elkarteekin elkarlanean aritu, bai euren funtzionatze gastuetarako eta baita egitasmo zehatzak edo elkartearen jardueraren helburu diren taldeei zuzendutako zerbitzuak egiteko.
ERAGINAK EDO HELBURUAK	Administrazioaren gizarte-ekintzaren osagarriak diren lanak garatzen duen elkarteak egiten dituen jarduerak sustatzea, baita herrian bere presentzia eta egotea bultzatzea ere.
JASOTZAILEAK	Gurutz Gorria
EMATEKO MODALITATEA	Izenduna, hitzarmen modura
ZENBATEKOA ETA APLIKAZIOA AURREKONTUAN	00800-23020-4810116: Gurutz Gorria: 6.000,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

KULTURA	2017.Urteko Bermeoko kaleetako jaiak ospatzeko, batez be, tradiziozko jaiak eta herritarren arteko bizikidetza bultzatzeko finantziatzeko programa.
XEDEA	2017.Urteko Bermeoko kaleetako jaiak ospatzeko, batez be, tradiziozko jaiak eta herritarren arteko bizikidetza bultzatzeko finantziatzeko programa.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">•Tradiziozko herriko jaiak bultzatu•Herritarren arteko kolaborazioa bultzatu
JASOTZAILEAK	Jaiak ospatzen daberen kaleetako pertsona fisikoak diru-laguntzaren oinarri espezifikoetako baldintzen betetzen baditu.
KONTSEZIOAREN MODALIDADEA	Konkurrentzia lehiakorra. Norgehiagoka
ZENBATEKOA ETA AURREKONTUAREN APLIKAZIOA	00400-33810-4810307: Jaiak diru-laguntza: 4.050,00 euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

EKONOMIA	Familia ugarien ondasun higiezin gainera zergako 2017. urteko diru-laguntza.
XEDEA	Familia ugariak ordaindu behar dituen zergak ordaintzen laguntza ematea.
HELBURUAK	• Famili ugari batek eguneroko bizitza egiten den etxeke Ondasun Higiezin Gainera zergaren kuota ordaintzeko finantziario laguntza edukitzea.
JASOTZAILEAK	Bermeoko famili ugariak, oinarri berezietako baldintzak betetzen dituenak.
KONTSEZIOAREN MODALIDADEA	Konkurrentzia lehiakorra.
ZENBATEKOA ETA AURREKONTUAREN APLIKAZIOA	00800-15230-4800401 Famili ugarietako IBren diru-laguntza: 6.000,00 euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

LURGINTZA	AUZO-TAXIA DIRU-LAGUNTZA 2017
XEDEA	2017ko Bermeoko Auzoetako Auzo-taxiaren erabilera finantzatzeko diru-laguntza programa.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">•Auzotarren bizi-erata erraztu•Auzotarrak herrira urratu.
JASOTZAILEAK	Bermeoko herriko auzoetako biztanleria.
KONTSEZIOAREN MODALIDADEA	Konkurrentzia lehiakorra.
ZENBATEKOA ETA AURREKONTUAREN APLIKAZIOA	00800-41400-4800101 Auzo-taxia: 3.600,00 euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

LURGINTZA	2017.URTEKO BERMEOKO AUZOETAKO JAIK FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMA.
XEDEA	2017ko Bermeoko Auzoetako Jaiak finantzatzeko diru-laguntza programa.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">•Tradiziozko auzoetako jaiak bultzatu.•Auzotarren arteko bizikidetza bultzatu•Bermeoko auzoen artean harremanak sendotu.•Herriari ezagutzera emon auzoak eta euren ohiturak.
JASOTZAILEAK	Auzoetako Alkateak.
KONTSEZIOAREN MODALIDADEA	Konkurrentzia lehiakorra. Norgehiagoka.
ZENBATEKOA ETA AURREKONTUAREN APLIKAZIOA	00800-33830-4810301 Auzoetako jaiak: 45.000,00 euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

II. ERANSKINA

ONGIZATE OSASUN PATRONATUA

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

GIZARTE ONGIZATERAKO UDAL PATRONATUA	Beste baliabideek estaltzen ez dituzten beharriaz bideratutako 2017. urteko diru-laguntza
XEDEA	Gizarte Bazterkeria eta Eskubide Sozialen Gutunean agertzen direnak estaltzen ez dituzten gabeziak dauzkaten pertsonen zuzendutako diru-laguntza.
ERAGINAK ETA HELBURUAK	•Gizarte Bazterkeria eta Eskubide Sozialen Gutunean agertzen direnak estaltzen ez dituzten gabeziak dauzkaten pertsonen zuzendutakoa.
JASOTZAILEAK	Gizarte beharrian egoeran egon eta babes sozialeko beste sistema batzuetatik laguntzarik hartzeko aukerarik ez daukaten pertsonak eta familiak.
EMATE MODALITATEA	Zuzena
ZENBATEKOA ETA APLIKAZIOA AURREKONTUAN	00000-23102-48009000 eskarien arabera

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

III. ERANSKINA

KIROL PATRONATUA

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

KIROLAK	Kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntza programa
XEDEA	Kirol taldeen jarduera arrunta finantzatzeko diru-laguntza programa
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">•Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko .•Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu elkarteen laguntzarekin.•Kirol praktika federatuari bultzakada eman bere emaitzak eta antolaketa optimizatzeko.
JASOTZAILEAK	Helbide soziala eta bere ohiko kirol jarduera Bermeon duten kirol elkarteak. Taldeek %30etik gorako autofinantzaketa izan beharko dute.
EMATEKO MODALITATEA	Konkurrentzia lehiakorra
ZENBATEKOA ETA AURREKONTU-PARTIDA	00000-34120-4890101 Kirol taldeen diru-laguntzak: 15.000,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

KIROLAK	Bermeon antolatzen diren kirol jarduera bereziak finantzatzeko diru-laguntza programa
XEDEA	Bermeon antolatzen diren kirol jarduera bereziak finantzatzeko diru-laguntza programa.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">•Herri osoarentzat, jarduera arruntetik haratago antolatzen diren jolas izaerako kirol jarduera berezien edo noizean behin jardueren antolaketa sustatzea, laguntza ezberdina edo gehigarria eskatzen dutenak.•Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu.•Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko.
JASOTZAILEAK	Bermeoko herrian kirol ekitaldiak antolatzen dituzten kirol taldeak eta bestelako pertsona fisikoak edo juridikoak.
EMATEKO MODALITATEA	Norgehiagoko erregimena.
ZENBATEKOA ETA AURREKONTU PARTIDA	00000-34120-4890102 Kirol jarduera bereziak: 21.000,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

KIROLAK	Eskola-Kiroleko partaideen artean kirolaren praktika sustatzeko diru-laguntza programa
XEDEA	Bermeoko eskola-kirola foru programan parte hartzen duten ume zein gazte bermeotarrei laguntzea jarduera fisikoa eta kirolaren praktika osasuntsua bermatzeko.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">• Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko.•Kirola era seguruan egitea, dagokion azterketa medikua eginez.•Aisialdia betetzeko aukera erakargarria bihurtzea kirola.•Jasotzaileek jabetzea Bermeo ordezkatzan dutela parte hartzen duten eskola-lehiaketetan eta euren portaera Bermeoko irudiarekin lotuta dagoela irakastea.•Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko.•Kirol ohitura osasuntsuak adin txikietatik tinkatzen erraztea.
JASOTZILEAK	Eskola-kirola foru egitarauko parte-hartzaile bermeotarrak.
EMATEKO MODALITATEA	Diru-laguntza zuzena
ZENBATEKOA ETA AURREKONTU PARTIDA	00000-34120-4890103: Hirugarrenei diru-laguntzak: 6.000,00 euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

KIROLAK HITZARMENAK	Futbolaren praktika bultzatzeko laguntzen programa.
XEDEA	Bermeoko Futbol taldeari, taldearen jarduera arruntaren kudeaketa finantzatzeko, herriko neska-mutilek, ume zein gazteek futbolean aritzeko aukera izan dezaten laguntza ematea.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">•Futbol taldearen jarduera eta ekimenen antolaketa bermatu.•Futbol taldearen harrobiaren etorkizuna bermatu•Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu.•Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko.
JASOTZAILEAK	Herrian bakarra den Futbol taldea: Bermeoko Futbol taldea
EMATEKO MODALITATEA	Laguntza zuzena hitzarmen bidez.
ZENBATEKOA ETA AURREKONTU PARTIDA	00000-34120-4890104: Futbol Taldeari diru-laguntza: 35.000,00 Euros

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

KIROLAK	Arraunaren praktika bultzatzeko laguntza programa
XEDEA	Arraun Taldeari, taldearen jarduera arruntaren kudeaketa finantzatzeko, herriko neska-mutilek, ume zein gazteek arraunean aritzeko aukera izan dezaten.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">• Arraun Taldearen jarduera eta ekimenen antolaketa bermatu.• Arraun Taldearen harrobiaren etorkizuna bermatu• Bermeoko kulturarekin lotutako kirola babestu eta sustatu• Herritarren aukerak kirola praktikatzeko areagotu• Ohiko kirola sustatu herritarren osasuna areagotzeko eta gizarte-harremanak eta bizi-kalitatea hobetzeko.• Bermeo arraunarekin lotuta ezagutzera ematea lehiatzera doazen lekuetara. (ez dator bat erderazkoagaz)
JASOTZAILEAK	Herrian dagoen arraun alkarte bakarra: Bermeoko Arraun Elkartea.
EMATEKO MODALITATEA	Laguntza zuzena hitzarmen bidez.
ZENBATEKOA ETA AURREKONTU PARTIDA	00000-34120-4890105: Arraun Elkarteari diru-laguntza: 56.000,00 Euro

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

IV. ERANSKINA

BERUALA S.A.

2017EKO DIRU-LAGUNTZEN UDAL PLAN ESTRATEGIKOA

BERUALA	Bermeoko Alde Zaharra biziberritzeko gazteei zuzendutako diru-laguntza
XEDEA	Herriko gazteen emantzipazio bidean laguntzeko etxebizitza alokairuak ordaintzen.
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">• Bermeoko 18-35 urte bitarteko gazteei Bermeoko Alde Zaharrean etxebizitza alokairua ordaintzen laguntzea, emantzipazio bidean laguntzeko.• Etxebizitza alokairua sustatu.
JASOTZAILEAK	Bermeoko 18-35 urte bitarteko gazteek diru-laguntze honen deialdiaren oinarri espezifikoetako baldintzak betetzen dituztenek.
EMATEKO MODALITATEA	Konkurrentzia lehiakorra
ZENBATEKOA ETA AURREKONTU PARTIDA	“Alde zaharreko biziberritzeko gazteei zuzendutako diru-laguntza programa” Berualakoa. 70.000,00.- euro